

**NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA****824**

AGINDUA, 2005eko otsailaren 4koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Nekazal Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistemaren (SIG-PAC) dauden datuak jendaurrean jartzekoa eta alegazioak aurkezteko prozedura ezartzekoa.

Nekazaritza-politika bateratuaren esparruko zuzeneko laguntza-erregimenetan aplikagarriak diren xedapen komunak ezartzen dituen, nekazarietzako laguntza-erregimen jakinak ezartzen dituen eta hainbat erregelamendu aldatzen dituen Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduak eta 1782/2003 (EE) Erregelamenduan aurreikusitako baldintzapetasuna, modulazioa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratua (SIGC) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Bartzordearen apirilaren 21eko 796/2004 (EE) Erregelamenduak ezartzen dute 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera estatu kideek nekazal lursailak identifikatzeko sistema bakarra izan behar dutela aipatutako SIGCeko elementuen artean, hori eskatuko baita lehen aipatutako Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduaren I. eta V. eranskinetan adierazitako laguntza-erregimenetara atxikita dagoen edozein lursail identifikatzeko.

Zentzu horretan, Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduko 20. artikulua xedatzen du nekazal lursailak identifikatzeko sistema (SIGPAC) mapa, katastro-agiri edo kartografiako bestelako erreferentzien bidez ezarriko dela eta horiek lortzeko, informazio geografikoa eskuratzeko sistema informatikoetan erabiltzen diren teknikak erabiliko direla, aireko edo espazioko ortoairudiak barne. Gutxienez 1/10.000 eskalako kartografiak daukan zehaztasuna bermatuko duen arau homogeneo baten erudia erabiliz egin behar dira horiek. Arautegi komunitario hori barruko ordenamendu juridikora sartu du nekazal lursailak buruzko informazio geografikoaren sistema arautzen duen urriaren 29ko 2128/2004 Errege Dekretuak (BOE, 274. zk., 2004ko azaroaren 13koa). Errege Dekretu horren helburua da nekazal lursailak buruzko identifikazio geografikoaren sistema (SIGPAC) aplikatzeko arauak ezartzea eta sistema hori erabiltzea kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuaren eta Europako Erkidegoko nekazaritza-politikaren azalerarekin zerikusia duten gainontzeko laguntza-erregimenen esparruko kudeaketa-tresna gisa.

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA  
Y PESCA****824**

ORDEN de 4 de febrero de 2005, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se someten a información pública los datos contenidos en el Sistema de Información Geográfica de Identificación de Parcelas Agrícolas (SIGPAC) y se establece el procedimiento para la presentación de alegaciones.

El Reglamento (CE) núm. 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre, por el que se establecen disposiciones comunes aplicables a los regímenes de ayuda directa en el marco de la política agraria común y se instauran determinados regímenes de ayuda a los agricultores y se modifican determinados reglamentos, y el Reglamento (CE) núm. 796/2004 de la Comisión, de 21 de abril, por el que se establecen disposiciones de aplicación de la condicionalidad, modulación y sistema integrado de gestión y control (SIGC) previstos en el Reglamento (CE) núm. 1782/2003, establecen que a partir del 1 de enero de 2005, los Estados miembro habrán de disponer de un sistema único de identificación de las parcelas agrarias, como uno de los elementos del mencionado SIGC que será exigible para la identificación de las parcelas acogidas a cualquiera de los regímenes de ayuda que se relacionan en los anexos I y V del mencionado Reglamento (CE) núm. 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre.

En este sentido, el artículo 20 del Reglamento (CE) núm. 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre, dispone que el sistema de identificación de parcelas agrícolas (SIGPAC) se establecerá a partir de mapas o documentos catastrales u otra referencias cartográficas haciendo uso de las técnicas empleadas en los sistemas informáticos de información geográfica, incluidas preferentemente, las ortoimágenes aéreas o espaciales, con arreglo a una norma homogénea que garantice la precisión equivalente, como mínimo, a la de la cartografía a escala 1/10.000. La incorporación de esta normativa comunitaria al ordenamiento jurídico interno ha venido dada por el Real Decreto 2128/2004, de 29 de octubre, por el que se regula el sistema de información geográfica de parcelas agrícolas, (BOE n.º 274, de 13 de noviembre de 2004) que tiene por objeto establecer las normas de aplicación del sistema de información geográfica de parcelas agrícolas (SIGPAC) y su utilización como instrumento de gestión en el marco del sistema integrado de gestión y control y resto de regímenes de ayuda relacionados con la superficie de la política agrícola común.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2002ko ekitaldian hasi ziren identifikazio-sistema eratzeke lanak. Lan horiek Nekazaritza eta Arrantza Sailak egin ditu Nekazal Ikerketa eta Teknologia, IKT, S.A.ren laguntza teknikoarekin. Bi erakunde horien arteko lankidetzak posible izan da 1999ko abenduaren 1ean informazioaren teknologia berrien sektore-sustapenerako sinatu zuten lankidetzak-hitzarmenari eta gaur egun indarrean dagoen lankidetzak-hitzarmenari esker. Azken hori 2003ko maiatzaren 16an sinatu zuten, nekazaritza, arrantza eta elikaduraren arloari lotutako informazio-teknikak garatu eta aplikatzeko.

Nekazal lursailei buruzko identifikazio geografikoaren sistema (SIGPAC) aplikatu aurretik eta sistema hori kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuaren eta Europako Erkidegoko nekazaritza-politikaren azalerarekin zerikusia duten gainontzeko laguntza-erregimenen esparruko kudeaketa-tresna gisa erabili aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko SIGPACean eskuragarri dagoen informazio guztia erakutsi behar zaie ekoizleei eta, era berean, SIGPACa erabiltzeko diseinatu diren tresna informatikoak erabiltzera ohitu behar dira, gero SIGPACa behin betiko ezartzeko eta nekazaritzako lursailen identifikazioa errazteko.

Interesa duten guztiek SIGPACen ezaugarrien berri izan dezaten eta lantze-fasean eta ondorengoetan egingadako akatsak edo ahaztuta utzitakoak direla-eta aurkeztu beharrekotzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten, agindu hau egin da. Aginduaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazal Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistemak dauden datuen inguruko alegazioak aurkezteko arauak ezartzea, eta sistema hori jendaurrean jartzea.

Agindu hau egiteko, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta nekazaritzako lanbide-erakundeei aholkua eskatu zaie.

Horiek horrela eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen urriaren 29ko 256/2002 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Helburua.

Agindu honen helburua da Nekazal Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistemak (aurreantzean SIGPAC deituko diogu) dauden datuak jendaurrean jartzea, eta interesdunek sistema hori begira-

En la Comunidad Autónoma de Euskadi las tareas de creación del sistema de identificación comenzaron en el ejercicio 2002 y han sido realizadas por el Departamento de Agricultura y Pesca, en colaboración técnica con la Sociedad Anónima Nekazal Ikerketa eta Teknologia, IKT, S.A., en virtud del Convenio de Colaboración para la promoción sectorial de nuevas tecnologías de la información, suscrito por ambas partes el 1 de diciembre de 1999 y del Convenio de Colaboración, actualmente en vigor, firmado el 16 de mayo de 2003, para el desarrollo y aplicación de técnicas de la información vinculadas al ámbito agropesquero y alimentario.

Como paso previo a la aplicación del sistema de información geográfica de parcelas agrícolas (SIGPAC) y su utilización como instrumento de gestión en el marco del sistema integrado de gestión y control y resto de regímenes de ayuda relacionados con la superficie de la política agrícola común, es preciso llevar a cabo un periodo de información pública para dar a conocer a los productores la información disponible en el SIGPAC de la Comunidad Autónoma de Euskadi y familiarizarlos con las herramientas informáticas diseñadas para su utilización, antes de su aplicación definitiva y para facilitar la identificación de las parcelas agrarias.

Con el objeto de que las personas interesadas puedan conocer las características del SIGPAC y alegar lo que estimen pertinente ante posibles errores u omisiones cometidos en la fase de elaboración, y en momentos posteriores, se dicta la presente Orden que tiene por objeto establecer las normas para la presentación de alegaciones referidas a los datos contenidos en el Sistema de Información Geográfica de Identificación de Parcelas Agrícolas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, sometiéndolo el mismo a información pública.

En la elaboración de la presente Orden han sido consultadas las Excmas. Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como las organizaciones profesionales agrarias.

En su virtud, de conformidad con las atribuciones conferidas en el Decreto 256/2002, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto.

La presente Orden tiene como objeto someter a información pública los datos contenidos en el Sistema de Información Geográfica de Identificación de Parcelas Agrícolas (en adelante SIGPAC) y establecer el

tzeko eta behar izanez gero alegazioak aurkezteko prozedura ezartzea.

### 2. artikulua.— SIGPACen konfigurazioa.

Nekazaritza-politika bateratuaren esparruko zuzeneko laguntza-erregimenetan aplikagarriak diren xedapen komunak ezartzen dituen, nekazarietzako laguntza-erregimen jakinak ezartzen dituen eta hainbat erregelamendu aldatzen dituen Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduko 18. artikulua araber, kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuko elementuetako bat da SIGPACa, eta bere ezaugarriak, erregelamendu bereko 20. artikulua araber, honakoak dira:

a) Mapa, katastro-agiri edo kartografiako bestelako erreferentzien bidez ezartzen da. Informazio geografikoa eskuratzeko sistema informatikoetan erabiltzen diren teknikak erabiltzen ditu, aireko edo espazioko ortoerudiak barne. Gutxienez 1:10.000 eskalako kartografiak daukan zehaztasuna bermatzen duen arau homogeneo baten araber, egiten dira horiek.

b) Oliogintzako identifikazio geografikoaren sistema ere badu. Olibondoaren eta azalaren alfazebakizko datu-base informatizatu batek eta erreferentzia grafikoko datu-base informatizatu batek osatzen dute sistema hori.

c) Nekazal lursailak identifikatzeko sistemak oskoldun fruituen inguruko informazio gehigarria emango du.

### 3. artikulua.— Jendaurrean jartzea.

1.— 2005eko ekitaldiari dagokion ezarpen-fasean SIGPACeko datuak begiratu eta hobetzeko, aipatutako informazio-sistema jendaurrean jarriko da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean. SIGPACa Eusko Jaurlaritzaren web orrian eta foru-aldundietako nahiz eskualdeko nekazaritza-bulegoetako informazio geografikoko sistemetan egongo da eskuragarri. Ondorengo informazioa eskaintzen du: lursailera arteko kokapena, katastroko erreferentzien bidez; erabileraren (lursailaren barruko esparruena); erabileraren azalera; eta ustiatzeko sistema (lehorreko laborantza/laborentza ureztatua).

2.— SIGPACeko informazioak ez du inola ere esku-bide partikularrik sortzen ez ematen ere; pertsona interesduna da proposatzen dituen alegazio edo aldaketan eta horiek oinarritzat hartuta ondoren egiten dituen adierazpen eta laguntza-eskaeren erantzulea.

procedimiento para su comprobación y, en su caso, presentación de alegaciones por las personas interesadas.

### Artículo 2.— Configuración del SIGPAC.

De conformidad con el artículo 18 del Reglamento (CE) núm. 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre, por el que se establecen disposiciones comunes aplicables a los regímenes de ayuda directa en el marco de la política agraria común y se instauran determinados regímenes de ayuda a los agricultores y se modifican determinados reglamentos, el SIGPAC es uno de los elementos del sistema integrado de Gestión y Control, cuyas características, según se dispone en el artículo 20 del citado Reglamento son las siguientes:

a) Se establece a partir de mapas o documentos catastrales u otras referencias cartográficas. Se hace uso de las técnicas empleadas en los sistemas informáticos de información geográfica, incluidas, preferentemente, las ortoimágenes aéreas o espaciales, con arreglo a una norma homogénea que garantice una precisión equivalente, como mínimo, a la de la cartografía a escala 1:10.000.

b) Incluye el SIG Oleícola compuesto por una base de datos alfanumérica informatizada y una base de datos de referencia gráfica informatizada para los olivos y las superficies considerados.

c) El sistema de identificación de parcelas agrícolas incorporará un nivel adicional de información correspondiente a frutos de cáscara.

### Artículo 3.— Información pública.

1.— Para la comprobación y depuración de los datos del SIGPAC en la fase de implantación correspondiente al ejercicio 2005, se somete el citado Sistema a información pública durante un periodo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. El SIGPAC, que estará accesible en la página web del Gobierno Vasco y en los sistemas de información geográfica de las Diputaciones Forales y de las Oficinas Comarcales Agrarias, proporciona la información relativa a la localización a través de referencia catastral hasta la parcela, uso (asociado a recinto, subdivisión de la parcela), superficie del uso y sistema de explotación (secano/regadío).

2.— En ningún caso la información del SIGPAC constituye ni genera derechos particulares, correspondiendo a la persona interesada la responsabilidad de las alegaciones o cambios propuestos y las posteriores declaraciones y solicitudes de ayuda que se realicen con base en los mismos.

**4. artikulua.**– SIGPACen aurkako alegazioak.

1.– Jendaurreko aldiak irauten duen bitartean, SIGPACeko datu-base grafikoetan eta alfazenbakizko datu-basetan dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko lur-sail edota esparruei buruzko informazioa errealitatera egokitzeko beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztuko dituzte interesa duten pertsonak. Halaber, SIGPACen xede eta helburuak betetzeko bestelako alegazioak ere aurkez daitezke. 2005eko ezarpenaren ondorengo aldietan egiten diren alegazioak edozein unetan aurkez daitezke. Alabaina, laguntza-eskabideak izapidetzeko kontuan hartuak izan daitezen, eskabideak aurkeztu aurreko urtearen azaroaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira alegazioak.

2.– Alegazioak agindu honetako I. eranskinean azaltzen den ereduaren arabera egin behar dira, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio, hori baita erabakiak hartzeko eskumena daukan organoa. Web orriko edo foru-aldundietako nahiz eskualdeko nekazaritza-bulegoetako informazio geografikoko sistemetak bisoretik ateratako irudi grafikoarekin batera aurkeztu behar dira aldaketak egiteko eskaera guztiak. Horrela, nekazariak, aurkeztutako alegazioen inguruko argibideak eman ahal izango dituzte.

3.– Oinarri grafikorako aldaketarik ez bada proposatzen, beharrezko agiriarekin batera aurkez daiteke alegazioa, etxetik hurbilen dagoen eskualdeko nekazaritza-bulegoan. Bulego horrek ustiatetik azalera gehiena dagoen lurralde historikoan egon behar du. Edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

4.– Oinarri grafikorako aldaketak proposatzen bada, bere etxetik hurbilen dagoen eskualdeko nekazaritza-bulegoan aurrez aurre har dezatela eskatu ahal izango du pertsona interesdunak.

**5. artikulua.**– Agiriak.

1.– Aurreko artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako alegazio-idatziarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Interesdunaren NAN edo IFKren fotokopia.

b) Interesdunak SIGPACen aurkako alegazioa legeko ordezkari baten bidez aurkeztu badu, ordezkariaren NANaren fotokopia eta interesdunaren ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

**Artículo 4.**– Alegaciones al SIGPAC.

1.– Durante el periodo de información pública, las personas interesadas presentarán las alegaciones que estimen necesarias para la adecuación a la realidad de la información contenida en las bases gráficas y alfanuméricas del SIGPAC para las parcelas y/o recintos ubicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi y deberá extenderse a cuantos datos sean necesarios para el cumplimiento de los fines y objeto del SIGPAC. La alegaciones en los periodos posteriores al de implantación, 2005, podrán presentarse en cualquier momento. No obstante, deberán presentarse con anterioridad al 1 de noviembre del año anterior a aquel en el que se presente la correspondiente solicitud de ayuda para poder ser tenidas en cuenta en la tramitación de la misma.

2.– Las alegaciones deberán formularse conforme al modelo que se adjunta como anexo I a la presente Orden y deberán ir dirigidas a la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, como órgano encargado de resolver. Todas las solicitudes de modificación deberán ir acompañadas de la salida gráfica del visor proporcionada desde la página web o por los sistemas de información geográfica de las Diputaciones Forales o las Oficinas Comarcales Agrarias, mediante la cual los agricultores expondrán las aclaraciones pertinentes a las alegaciones presentadas.

3.– Si no se proponen cambios en la base gráfica, la alegación podrá presentarse, acompañada de la documentación necesaria, en una de las Oficinas Comarcales Agrarias más próxima a su domicilio y que corresponda al Territorio Histórico donde radique la mayor parte de la superficie de explotación, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Si se proponen cambios en la base gráfica, la persona interesada podrá solicitar ser atendida de forma presencial en una de las Oficinas Comarcales Agrarias más próxima a su domicilio.

**Artículo 5.**– Documentación.

1.– Junto al escrito de alegación al que hace referencia el apartado 2 del artículo anterior, se deberá presentar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI o CIF de la persona interesada.

b) Si la persona interesada presenta la alegación al SIGPAC a través de representante legal, copia del DNI en vigor del representante y documentación acreditativa de dicha representación.

## c) Interesduna dela egiaztatzen duen agiria.

2.– Horrez gain, aurkeztutako alegazio-motaren araberaren, ondoren adierazitako agiriak, izanez gero, eta informazioa eman dezakeen beste edozein agiri aurkeztu behar dira:

## a) 1. mota: esparru osoko erabilera aldatzea:

- Aurreko kanpainetan lursail horrentzat eskatutako laguntza-eskabidearen kopia, edo horren erreferentzia.

- Lursail horren soro-kontrolaren aktaren fotokopia edo horren erreferentzia.

- Erakunde eskudunari alegazioaren inguruan aurretik aurkeztutako agirien (alegazioa abalatu dezaketenen) kopia.

## b) 2. mota: esparru osoa ustiatzeko sistema aldatzea (lehorreko laborantza/laborantza ureztatua):

- Aurreko kanpainetan lursail horrentzat eskatutako laguntza-eskabidearen kopia, edo horren erreferentzia.

- Lursail horren soro-kontrolaren aktaren fotokopia edo horren erreferentzia.

- Erakunde eskudunari alegazioaren inguruan aurkeztutako agirien (alegazioa abalatu dezaketenen) kopia.

- Erakunde eskudunak aldaketa egiteko baimena eman duela adierazten duen frogagarria.

## c) 3. mota: esparru bat zatitzea, zati baten erabilera aldatzeko.

- Aurreko kanpainetan lursail horrentzat eskatutako laguntza-eskabidearen kopia, edo horren erreferentzia.

- Lursail horren soro-kontrolaren aktaren fotokopia edo horren erreferentzia.

- Erakunde eskudunari alegazioaren inguruan aurkeztutako agirien kopia.

## d) 4. mota: esparrua zatitzea, zati bateko ustiapen-sistema aldatzeko (lehorreko laborantza/laborantza ureztatua):

- Aurreko kanpainetan lursail horrentzat eskatutako laguntza-eskabidearen kopia, edo horren erreferentzia.

- Lursail horren soro-kontrolaren aktaren fotokopia edo horren erreferentzia.

- Erakunde eskudunari alegazioaren inguruan aurkeztutako agirien kopia.

- Erakunde eskudunak aldaketa egiteko baimena eman duela adierazten duen frogagarria.

## c) Documentación acreditativa de la condición de interesado.

2.– Además, y en función del tipo de alegación presentada, habrá de adjuntarse, si la hubiere, la documentación que se describe a continuación así como cualquier otra que pueda proporcionar información:

## a) Tipo 1: cambio de uso en un recinto completo:

- Copia de la solicitud de ayuda de esa parcela en campañas anteriores, o referencia de la misma.

- Copia de un acta de control en campo de esa parcela, o referencia de la misma.

- Copia de la documentación presentada con anterioridad ante el organismo competente referida a la alegación y que pudiera avalar ésta.

## b) Tipo 2: cambio de sistema de explotación (secano/regadío) en un recinto completo:

- Copia de la solicitud de ayuda de esa parcela en campañas anteriores, o referencia de la misma.

- Copia de un acta de control en campo de esa parcela, o referencia de la misma.

- Copia de la documentación presentada ante el organismo competente referida a la alegación.

- Justificación de que se ha autorizado un cambio por parte del organismo competente.

## c) Tipo 3: partición de un recinto para cambiar el uso en parte del mismo.

- Copia de la solicitud de ayuda de esa parcela en campañas anteriores, o referencia de la misma.

- Copia de un acta de control en campo de esa parcela, o referencia de la misma.

- Copia de la documentación presentada ante el organismo competente referida a la alegación.

## d) Tipo 4: partición de un recinto para cambiar el sistema de explotación (secano/regadío) en parte del mismo:

- Copia de la solicitud de ayuda de esa parcela en campañas anteriores, o referencia de la misma.

- Copia de un acta de control en campo de esa parcela, o referencia de la misma.

- Copia de la documentación presentada ante el organismo competente referida a la alegación.

- Justificación de que se ha autorizado un cambio por parte del organismo competente.

e) 5. mota: nekazaritzarako erabiltzen den herri baruko lursailen bat egotea:

- Lursailaren erreferentzia geografikoa ematea ahalbidentzen duen katastro-planoa edo antzekoa. Gainean, lursailaren krokisa marraztuko da.

- Lursail hiritarraren katastro-zedula eta katastroko agiri grafikoa.

- Lursailari edozein laguntza-erregimenetan emandako laguntzaren soro-kontrolako akta baten kopia.

f) 6. mota: lursailen morfologia aldatzea:

- Erasandako lursail mugakideen titularren adostasun-idatzia.

g) 7. mota: gainontzeko alegazioak:

- Alegazioaren azalpenak ematen dituen idatzia.

3.- Hainbat interesdun dauden lursailen kasuan, interesdun guztiek aurkeztu beharko dituzte aipatutako agiriak, eta proposatutako aldatetako ere erasandako interesdun guztiek sinatu beharko dituzte.

4.- Gerta daiteke aurkeztutako eskaeran akats edo okerren bat agertzea edo ezarritako betekizun guztiak ez betetzea; halako kasuetan, alegazioa jaso duen organoak interesdunari dei egingo dio hamar eguneko epean akatsa konpon dezan edo manuzko agiriak erants ditzan; horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 42. artikulua ezarritako baldintzen arabera aurretik ebazpena emanda.

**6. artikulua.**– Aurkeztutako alegazioen balorazioa eta ebazpena.

1.– Aurkeztutako alegazioak egiaztatu eta aztertuko ditu Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta, ondoren, alegazioak aurkeztu eta sei hilabete igaro aurretik, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak foru-aldundiei adieraziko die onetsi diren edo atzera bota diren, gero foru-aldundiek interesdunei jakinarazteko. Epe horretan berriazko ebazpenik izan ezean, interesdunek eskabideak ezetsi direla pentsatu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44. artikulua arabera.

2.– Alegazioak onetsiz gero, onetsitako alegazio horiek SIGPACen sar daitezela egin beharreko jarduerak egin daitezela aginduko du Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak.

**7. artikulua.**– Lursailen identifikazioa.

2005eko ekitaldian laboreen aitortpenak eta laguntza-eskabideak aurkezten dituzten interesdunek hona-

e) Tipo 5: existencia de parcela ubicada en zona urbana que tiene uso agrícola:

- Plano catastral o similar que permita georeferenciar la parcela sobre el que se dibujará un croquis de la misma.

- Cédula catastral y salida gráfica de catastro de urbana.

- Copia de un acta de control de campo de cualquier régimen de ayuda, para la parcela.

f) Tipo 6: cambios en la morfología de las parcelas.

- Acuerdo escrito de los titulares de las parcelas colindantes afectadas.

g) Tipo 7. Otras alegaciones no contempladas anteriormente:

- Escrito con explicación de la alegación.

3.– En parcelas en que existan múltiples interesados, la documentación indicada será necesaria para la totalidad de los interesados y los cambios propuestos deberán ser suscritos por aquellos a los que afecten.

4.– Si en la solicitud presentada se advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud, o bien no reuniera todos los requisitos establecidos, el órgano en el que se presente la solicitud de alegación requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 6.**– Valoración y resolución de las alegaciones presentadas.

1.– La Resolución de aceptación o rechazo de las alegaciones presentadas, una vez verificadas y estudiadas por el Departamento de Agricultura y Pesca, se adoptará y comunicará a las Diputaciones Forales para su notificación a los interesados por el Director de Agricultura y Ganadería en el plazo máximo de seis meses desde su presentación, transcurrido el cual sin resolución expresa los interesados podrán entender desestimadas sus alegaciones de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– En los supuestos en los que las alegaciones sean aceptadas, el Director de Agricultura y Ganadería ordenará realizar las actuaciones necesarias para la incorporación de las mismas al SIGPAC.

**Artículo 7.**– Identificación de parcelas.

Las personas interesadas que presenten declaraciones de cultivo y solicitudes de ayudas en el ejercicio 2005

koak adierazi beharko dituzte nekazal lursailak identifikatzeko SIGPACeko alfazenbakizko sistemaren eta sistema grafikoaren bidez: lursail eta esparru bakoitzaren azalera, kokagunea, erabilera eta ustiapen-sistema.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**— Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren arabera kudeatuko dira agindu honetako alegazioak. NBBEF-Bermearen kargura finantzatutako zuzeneko laguntzak eta landa-garapenerako neurriak kudeatu eta ordaintzeko sinatu zen hitzarmen hori.

**Bigarrena.**— Kanpaina honetan olibondoak deklaratzeko aldia bukatu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak oliotarako lursailak sistema berri honetara egokitze beharrezko datuak helaraziko dizkie nekazariei, interesdunek datu horiek berresteko behar besteko denborarekin.

**Hirugarrena.**— Nekazaritza eta Arrantza Sailari egiten zaizkion erreferentziak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretuak xedatutakoaren arabera ulertu behar dira eta, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari egiten zaizkion erreferentziak, berriz, egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen dekretuan xedatutakoaren arabera.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa.**— Mahastizaintza eta ardogintzako sektoreko azalarekin zerikusia daukaten laguntzak jaso ditzaizkien lursailak identifikatzeko sistema gisa Mahastizaintza eta Ardogintzako Erregistroa erabiltzen jarrai daiteke. SIGPACa funtzionatzen hasi ondoren, ordea, Mahastizaintza eta Ardogintzako Erregistroan egiten diren ohiko aldaketetarako, lursailen identifikaziorako SIGPACek daukan informazio grafikoa eta alfazenbakizkoa hartuko da oinarritzat.

**Bigarrena.**— 2005eko urte naturalari dagozkion aitorpenetarako salbuespen gisa, aldi baterako salbuesita geratzen dira Agindu honetako II. eranskinean azaltzen diren Araba eta Bizkaiko lurralde historikoetako udalerriak. Landa-katastroko informazioa erabiliko da horietan.

indigarán la superficie, localización, el uso y el sistema de explotación de cada una de las parcelas y recintos mediante el sistema alfanumérico y gráfico de identificación de parcelas agrícolas del SIGPAC.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**— La gestión de las alegaciones de la presente Orden se realizará conforme al Convenio de Colaboración entre el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las Diputaciones Forales de Bizkaia, Álava y Gipuzkoa relativo a la gestión y pago de las ayudas directas y medidas de desarrollo rural financiadas con cargo al FEOGA-Garantía.

**Segunda.**— Una vez finalizado el periodo de declaración de olivar para esta campaña, la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, facilitará a los agricultores los datos necesarios para la adaptación de sus parcelas oleícolas a este nuevo sistema con plazo suficiente para su ratificación por los interesados.

**Tercera.**— Las referencias contenidas al Departamento de Agricultura y Pesca y a la Dirección de Agricultura y Ganadería deben entenderse hechas, en cada momento, al Departamento que en virtud del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y a la Dirección, que en virtud del Decreto de estructura orgánica y funcional, ostenten las competencias en la materia.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Primera.**— Para las ayudas relacionadas con la superficie en el sector vitivinícola se podrá seguir utilizando el Registro Vitícola como sistema de identificación de parcelas. Se partirá de la información gráfica y alfanumérica de identificación de parcelas del SIGPAC en las actualizaciones regulares del Registro Vitícola que se produzcan con posterioridad a la entrada en funcionamiento del SIGPAC.

**Segunda.**— Para las declaraciones correspondientes al año natural 2005 se exceptúan, de forma excepcional y con carácter temporal, los municipios que se relacionan en el anexo II a la presente Orden correspondientes a los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia, empleándose de forma sustitutoria la información contenida en el catastro de rústica.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 4a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2005.

El Consejero de Agricultura y Pesca,  
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.



I. ERANSKINA, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2005eko otsailaren 4ko Aginduarena. Nekazal Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistemaren (SIGPAC) dauden datuak jendaurrean jarri eta alegazioak aurkezteko prozedura ezarri da agindu horren bidez.

(Autonomia Erkidegoaren anagrama)

Nekazal lursailak geografikoki identifikatzeko sistema (SIGPAC) aldatzeko eskaera

Espediente-zk. 

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

  
(Administrazioak bete behar du)

1	Interesdunaren edo bere legezko ordezkariaren datuak					
	Izen-abizenak edo Baltzuaren izena		IFZ/IFK			
	Helbidea					
	Udalerrria		Probintzia		Posta-kodea	
	1. Telefonoa	2. Telefonoa	Faxa	Posta elektronikoa		
	Legezko ordezkariaren izen-abizenak			IFZ		
	Aurkeztutako informazioa azken kanpainetako aitortpenetan ere aurkeztu zen, nekazaritza-laguntzaren bat jasotzeko				Ez	Bai
	Aurkeztutako informazioaren edukia azken ekitaldian ustiatzean bertan egindako kontrolen batean erabili da				Ez	Bai
2	Egiaztagiriak					
	a) Interesdunaren NAN/IFZ.					
	b) Legezko ordezkariaren NAN/IFZ eta ordezkaria dela egiaztatzen duen agiria.					
	c) Interesduna dela egiaztatzen duen agiria					
	Aurreko kanpainaren baterako laguntza-eskaeraren kopia (aurkeztu izanez gero)				Bai	Ez
	Kanpaina adierazi: _____					
	Laguntza-eskaerarik EZ baduzu eskatu:					
	Katastro-zedula				Bai	Ez.
	Salerosketako eskritura publikoa, Jabetza Erregistroko Ohar Soila, edo ustiatzea erabiltzeko eskubidea ematen duen beste edozein agiria.				Bai	Ez
	Errentamendu-kontratua, erdirako kontratua, jabeak sinatutako agiria pribatua, edo beste agiria batzuk				Bai	Ez
	Beste agiriak:					
	Behean sinatu duenak bere ardurapean ADIERAZTEN DU alegazio honetan eta alegazioarekin batera aurkeztutako agirietan azaltzen diren datu guztiak benetakoak direla, eta administrazio eskudunak agiria honetako datuak benetakoak direla egiaztatzeko egin beharreko jarduerak errazteko KONPROMISOA HARTZEN DU.					
	_____, 200_(e)ko _____ren _____(e)an.					
	INTERESDUNA					
	Sin.: _____					

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA ZUZENDARI JAUNA.

#### DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, agiria honen eta honenkin batera aurkeztutako beste agirien bidez eskuratutako zure datu pertsonalak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren fitxategi automatizatu batean erregistratuko dira. Alegazioak eta aldaketa-eskaerak SIGPACeko datu-base grafikoan eta alfazenbakizko datu-basean sartzeko bildu eta tratatuko dira datu horiek. Aipatutako Legearekin bat etorrituz, datuok eskuratu, zuzendu, ezetzatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatzea zaitzazke, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baita tratamenduaren arduraduna (Donostia-San Sebastián kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Espediente-zk.

(Administrazioak bete behar du)

NEKAZAL LURSAILEI BURUZKO IDENTIFIKAZIO GEOGRAFIKOAREN SISTEMA (SIGPAC) ALDATZEKO ESKAERA

Interesdunaren izen-abizenak edo baltzuaren izena:											NAN/IFK:													
SIGPACeko datuak										Alegazio-mota	Proposatutako aldaketa				Aurkeztutako agiriak (X batekin markatu)									
Probintziaren kodea	Udalerrria (izena eta kodea)	Agregatua	Eremua	Poligono-zk.	Lursail-zk.	Esparru-zk.	Esparruaren azalera (ha)	Esparruaren erabilera (kodea)	Ureztaketa-koef. (%)		Esparru-zk.	Esparruaren-tzat proposatutako azalera (ha)	Esparruaren-tzat proposatutako erabilera (kodea)	Proposatutako ureztaketa-koef. (%)	IG	UPF	ZDG	TT	JMA	KA	BEA	BA		

Alegazio-mota: 1 Esparru osoaren erabilera aldatzea. 2 Esparru osoa ustiatzeko sistema aldatzea (lehorreko laborantza/laborantza ureztatua). 3 Esparrua zatitzea, zati baten erabilera aldatzeko. 4 Esparrua zatitzea, zati bateko ustiapen-sistema aldatzeko (lehorreko laborantza/laborantza ureztatua). 5 Nekazaritzarako erabiltzen den herri barruko lursaila. 6 Lursailaren morfologia aldatzea. 7. Bestelako alegazioak eta aldaketa-eskaerak.

Aurkeztutako agiriak: IG: Lursailaren irudi grafikoa. UPF: Lehorreko laborantzatik laborantza ureztatura pasatu izanaren frogagiria. ZDG: Lursail hiritarraren katastroziurtagiria, deskriptibo eta grafikoa. TT: Txosten tekniko ikus-onetsia. JMA: Jabe mugakideen adostasuna. KA: Aurreko urteetako kontrol-aktaren kopia. BEA: Beste erakundeetan aurkeztutako agiriak. BA: Bestelako agiriak.

Behean sinatu duenak, adierazitako lursailaren/esparruaren (ezabatu soberan dagoena) inguruan SIGPACen azaltzen den edukia aldatzeko ESKATZEN DU. Bestalde, bere ardurapean ADIERAZTEN DU alegazio honetan eta alegazioarekin batera aurkeztutako agiritan azaltzen diren datu guztiak benetakoak direla, eta administrazio eskudunak agiri honetako datuak benetakoak direla egiaztatzeko egin beharreko jarduerak errazteko KONPROMISOA HARTZEN DU.

\_\_\_\_\_n, 200\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_ (e)an

INTERESDUNA

Sin.: \_\_\_\_\_

ANEXO I a la Orden de 4 de febrero de 2005, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se somete a información pública los datos contenidos en el Sistema de Información Geográfica de Identificación de Parcelas Agrícolas (SIGPAC) y se establece el procedimiento para la presentación de alegaciones.

(Anagrama Comunidad Autónoma)

Solicitud de modificación del sistema de identificación geográfica de parcelas agrícolas (SIGPAC)

N.º de Expediente										
-------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

(A rellenar por la Administración)

1	Datos del/la interesado/a o del representante legal		
Apellidos y nombre o Razón social		NIF/CIF	
Domicilio			
Municipio		Provincia	Código postal
Teléfono 1	Teléfono 2	Fax	Correo electrónico
Apellidos y nombre del representante legal		NIF	
La información que aporta se acompañó a las declaraciones en las últimas campañas para algún tipo de ayuda agraria			
		Sí	No
El contenido de la información que aporta ha sido objeto de algún control sobre el terreno en la última campaña			
		Sí	No
2	Documentación acreditativa		
a) DNI/NIF de la persona interesada.			
b) DNI/NIF del representante legal, así como documentación acreditativa de la representación que ostenta.			
c) Documentación acreditativa de la condición de persona interesada:			
Sí		No	
Copia de solicitud de ayuda en alguna campaña anterior (en el caso de que se haya presentado), indicando a continuación de qué campañas se trata: _____			
En el caso de que NO se haya presentado solicitud de ayuda alguna:			
Sí		No	
Cédula catastral.			
Sí		No	
Escritura pública de Compra-Venta, Nota Simple del Registro de la Propiedad, u otros que demuestren el derecho de uso de la explotación.			
Sí		No	
Contrato de Arrendamiento, contrato de Aparcería, documento privado suscrito por el propietario u otros.			
Otras documentaciones:			
El abajo firmante DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos cuantos datos figuran en la presente alegación, así como en la documentación que se acompaña, y SE COMPROMETE a facilitar las diferentes actuaciones que la Administración competente estime oportunas para comprobar la veracidad de los datos recogidos en el presente documento.			
En _____ a _____ de _____ de _____,			
EL/LA INTERESADO/A			
Fdo.: _____			

ILMO. SR. DIRECTOR DE AGRICULTURA Y GANADERÍA.

#### PROTECCIÓN DE DATOS

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Agricultura y Pesca le informa que los datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento y demás que se adjuntan van a ser incorporados, para su tratamiento, en un fichero automatizado. Asimismo, se le informa que la recogida y tratamiento de dichos datos tienen como finalidad la incorporación de alegaciones y solicitudes de modificación a las bases de datos gráfica y alfanumérica del SIGPAC. De acuerdo con lo previsto en la citada Ley Orgánica, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito a Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco como responsable del tratamiento y con domicilio en C/ Donostia- San Sebastián, 1, en Vitoria- Gasteiz.

SOLICITUD DE MODIFICACIÓN DEL SISTEMA DE INFORMACIÓN GEOGRÁFICA DE PARCELAS AGRÍCOLAS (SIGPAC)

Apellidos y nombre o Razón Social de la persona interesada:										NIF/CIF:													
Datos SIGPAC										Tipo de Alegación	Modificación propuesta				Documentación que aporta (Marcar con una X)								
Código provincia	Término municipal (nombre y código)	Agregado	Zona	N.º de polígono	N.º de parcela	N.º de recinto	Superficie recinto (ha)	Uso recinto (código)	Coef. de regadío (%)		N.º de recinto	Superficie recinto propuesta (ha)	Uso recinto propuesto (código)	Coeficiente de regadío propuesto (%)	SG	JCR	CDG	IT	APC	AC	DOG	OD	

Tipo de alegación: 1 Cambio de uso en un recinto completo. 2 Cambio de sistema de explotación (secano/regadío) en un recinto completo. 3 Partición de un recinto para cambiar el uso en parte del mismo. 4 Partición de un recinto para cambiar el sistema de explotación (secano/regadío) en parte del mismo. 5 Parcela ubicada en zona urbana que tiene un uso agrícola. 6 Cambios de morfología de la parcela. 7. Otras alegaciones y solicitudes de modificación.

Documentación aportada: SG: Salida gráfica de la parcela. JCR: Justificante de cambio de secano a regadío. CDG: Certificación catastral de urbana, descriptiva y gráfica. IT: Informe técnico visado. APC: Acuerdo entre propietarios colindantes. AC: Copia acta de control de años anteriores. DOG: Documentación presentada en otros órganos. OD: Otra documentación.

El abajo firmante SOLICITA la modificación del contenido del SIGPAC referida a la parcela/recinto (táchese lo que no proceda) que se indica, DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos cuantos datos figuran en la presente alegación, así como en la documentación que se acompaña, y SE COMPROMETE a facilitar las diferentes actuaciones que la Administración competente estime oportunas para comprobar la veracidad de los datos recogidos en el presente documento.

En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_,

EL/LA INTERESADO/A

Fdo.: \_\_\_\_\_

II. ERANSKINA, Nekazaritza eta Arrantza sailburearen 2005eko otsailaren 4ko Aginduarena. Nekazal Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistemaren (SIGPAC) dauden datuak jendaurrean jarri eta alegazioak aurkezteko prozedura ezarri da agindu horren bidez.

Araba:

Armiñón

Campezo/Kanpezu

Kuartango

Ribera Alta

Harana/Valle de Arana

Iruña Oka/Iruña de Oca

Bizkaia:

Abanto y Ciérvana/Abanto Zierbena

Barakaldo

Basauri

Bilbao

Muskiz

Portugalete

Ortuella

Santurtzi

Sestao

Valle de Trápaga/Trapagaran

Zierbena

ANEXO II a la Orden de 4 de febrero de 2005, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se somete a información pública los datos contenidos en el Sistema de Información Geográfica de Identificación de Parcelas Agrícolas (SIGPAC) y se establece el procedimiento para la presentación de alegaciones.

Álava

Armiñón

Campezo

Kuartango

Ribera Alta

Valle de Arana

Iruña de Oca

Bizkaia

Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena

Barakaldo

Basauri

Bilbao

Muskiz

Portugalete

Ortuella

Santurtzi

Sestao

Valle de Trápaga - Trapagaran

Zierbena

## Justizia Administrazioa

### BARAKALDOKO LEHEN AUZIALDIKO 1 ZENBAKIKO EPAITEGIA

825

EDIKTUA, zenbateko bat erreklamatzeko burututako 974/03 zk.ko L2 prozeduraren ondoriozkoa.

Barakaldoko Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegia (Bizkaia).

Judizioa: L2 974/03, prozedura arrunta.

Demandatzailea: Kanaltec SL.

Abokatua: Villanueva Garay, Guillermo.

Prokuradorea: Maria Luisa Gutiérrez Ontoria andrea.

Demandatua: José Maria Melsio Bustamante eta Construcciones eta Contratas Fimacal SL.

Gaia: diru-zenbateko bat erreklamatzea.

## Administración de Justicia

### JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 1 DE BARAKALDO

825

EDICTO dimanante del procedimiento L2 n.º 974/03 seguido sobre reclamación de cantidad.

Juzgado de Primera Instancia n.º 1 de Barakaldo (Bizkaia).

Juicio: Pro. ordinario L2 974/03.

Demandante: Kanaltec, S.L.

Abogado: D. Villanueva Garay, Guillermo.

Procurador: D.ª Maria Luisa Gutiérrez Ontoria.

Demandado: José Maria Melsio Bustamante y Construcciones y Contratas Fimacal, S.L.

Sobre: reclamación de cantidad.